

En Tol Sarmiento

BESTE BEHIN (ONCE AGAIN)

Kantu bat ala liburu bat, xuxurla bat edo haur baten oihua.

Bi begiraden arteko talkatik berriro sortu den mundua.

Eskurik esku (1) LORE bat, harri bat, mezu bat jaso eta beste bati pasa.

Amaierarik ez duen (2) MUSU baten arnasa.

Beste behin itsasoa,

beste behin kantu berri bat.

Beste behin ""Lau teilatu"" eta ""zu goruntz begira"".

Haizea aurpegian,

esku bat izarren bila.

Zure arnasa lepoan, bidea hasi dadila!

Zure eskuko azalean irakurritakoan nire historia

Urrunetik entzuten den aspaldiko amets baten melodia.

Desio bat, esperantza bat, milaka (3) BEGI so eta zu euritan korrika.

Eta ilargiaren argitara entzuten da

Beste behin itsasoa,

beste behin kantu berri bat.

Beste behin ""Lau teilatu"" eta ""zu goruntz begira"".

Haizea aurpegian,

esku bat izarren bila.

Zure arnasa lepoan, bidea hasi dadila!

Esaidazu berriro gaur belarri ondora gure amets (4) HURA.

Kantu hau gorde dezala eguzkiak hartzen dituen ortzi-mugak.
Berriro bat izateko (5) GAU luze bat dator.

Sekretu bat daukazu.

Berriro indar bat dator, gure bila dator.

Besarkatuko al nauzu?

Beste behin itsasoa,

beste behin kantu berri bat.

Beste behin ""Lau teilatu"" eta ""zu goruntz begira"".

Haizea aurpegian,

esku bat izarren bila.

Zure arnasa lepoan, bidea hasi dadila!